

AKTA ZK.: 8/2019

2019ko apirilaren 16ko 13:00etan, Gasteizen elkartu da **Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen osoko bilkura**. Aldez aurretik deialdia egin zen, eta honako gai-zerrenda hau jorratu da:

1. Ebatzi gabe dauden espedienteak ebazteko proposamenak.
2. Administrazioarekiko auzietako errekursoak.
3. Galderak eta eskaerak.

PRESIDENTEA:

Javier Bikandi Irazabal jauna

KIDEAK:

Maria Soledad Gutierrez Rodriguez andrea

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea

IDAZKARIA:

Maria Soledad Gutierrez Rodriguez andrea

1. Ebatzi gabe dauden espedienteak ebazteko proposamenak.

1-1 2019/000083 espedientearen ebazpen-proposamena

Ondoren, batzordeburuak hitza eman dio proposamena aurkeztu duen kideari. Proposamena aurretik bidali zen, batzordekideek azter zezaten. Aztertu ostean, aho batez onetsi da, Batzordearen 52/2019 Ebazpen gisa.

1-2- 2019/000091 espedientearen ebazpen-proposamena

Ondoren, batzordeburuak hitza eman dio proposamena aurkeztu duen kideari. Proposamena aurretik bidali zen, batzordekideek azter zezaten. Aztertu ostean, aho batez onetsi da, Batzordearen 54/2019 Ebazpen gisa.

2. Administrazioarekiko auzietako errekursoak.

Batzordearen ebazpenen aurka planteatutako administrazioarekiko auzien errekursoen harira sartu den dokumentazioa zein den jakinarazi du batzordeburuak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 2019ko apirilaren 2ko epaia jaso da; horren bidez, ezetsi egin zen Oñatiko Udalak planteatutako errekurtoa, Batzorde honen 69/2018 ebazpenaren eraginkortasuna kautelaz etetea ukatzen zuen 2019ko otsailaren 26ko autoaren aurka; kautela-neurriei buruzko 11/2019 pieza berezia. Aipatu autoaren arabera,

GIPGOL betetzeak berez dakarren interes publikoaren gailentasunaren aldean informazioa emateak sortzen dizkion kalteak ez ditu behar bezala egiaztatu Udalak.

- Era berean, Justiziako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salara igorritako administrazio-espeditentea irekitzeko eskaria sartu da. Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareak Batzorde honen abenduaren 18ko 57/2918 Ebazpenaren aurka jarritako errekurtsoren emaitza da aipatu espeditentea.

3. Galderak eta eskaerak.

Ez da eskaerarik egin, ezta galderarik ere. Beraz, batzordeburuak bilera amaitutzat eman du 14:00etan.

Idazkaria

Maria Soledad Gutierrez Rodriguez andrea

Kidea

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea

Batzordeburua

Javier Bikandi Irazabal jauna